DEUSTUKO IKASTOLA
GURASO
ELKARTEA

Iruña kalea, 2 bis
944 280 126
48014 Bilbao
www.deustukoikastola.org

4. Guraso Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko Bilera Akta.

2019-2020 Ikasturtea.

Eguna: 2020ko urtarrilaren 14an (17:35etatik 20:00etara).

Nor etorri da: Naia, María, Leire, Karol, Olatz, Mikeldi, Jon, Igor, Inma.

Ez da etorri: Unai.

Ikastola Zuzendaritzarekin koordinazio bilera:

Zuzendaritza partetik datozenak: Itziar, Iban, Mª Jesús.

*Irudi grafiko berri*a: Beraiek oraindik ez dute ezer egin. Ez diegu ezer pasatu. Komunikazio batzordea beraiekin jarriko da harremanetan.

Aurreko gaiaren arira gogoratzen zaigu urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra aurre matrikulazio prozesua hasten dela. Guraso Elkartearen informazio orria prestatu behar dugu beraiek dutena oso zaharkiturik dagoelako.
Eta bestalde gogoratzen zaigu urtarrilaren 29an Ate Irekien batzarra dagoela gutariko norbait bertan izateko 19:00etan. Komunikazio taldeari abisatuko zaio.

Jantokia infraestruktura arazoa: gure egoera eta orain arte emandako pausuen berri ematen zaie. Beraiek prest azaltzen dute beraien burua gurekin batera EJ eta Udalarekin konponbidean inplikatzeko. Baita ere adierazpen bat ateratzeko Eskola Kontseiluan. Behar izango balitz bat datoz elkar komunikatu bat hedatzeko.

Aureko gaiarekin lotuta, jantoki zerbitzua hobetzearen aldera, esaten zaie jantokiko irakasle arduradunaren figura eskatu nahi dugula EJ-ri. Ez dute eritzi zehatz botatzen baina badirudi neurriak arraroa iruditzen zaiela.

Jantokiko ez ordainketak: hilabetez hilabete ez ordainketak daudela azaltzen da Jantokiko ordezkariaren partetik. Badaude pare bat familia zuzendaritzaren gomendioa dugula jaten emateko nahiz eta ez ordaindu.
Gure artean informazioa hobeto koordinatzeko gelditzen gara.

Sukaldearekin arazoak:

Jantoki Batzordetik azaltzen da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko azpiegitura, baliabide eta azpiegitura zuzendaritzatik eta Udaletxetik ez dela erantzunik jaso Gabon aurretik ona eta egoera okertu dela hainbat gailu eta baliabideekin.

Maila politikoan ere egindako eskariek oraindik ez dute oihartzunik izan azaltzen da, baina ostiral honetan EJrekin bilera dugula, azpiegitura zuzendariarekin, Polentzi Urkijo.

Bilera horretara itxarongo dugu hurrengo pausuak emateko.

DEUSTUKO IKASTOLA
GURASO
ELKARTEA

Iruña kalea, 2 bis
944 280 126
48014 Bilbao
www.deustukoikastola.org

Estatutu berriak:

EJ-k Estatutuak eta Junta berria osaketari oneritzia eman dio. Beraz, behin betiko onartuta geratzen dira.

Loteria:

Guztira 4.700€tako etekina atera da. Ekintza kulturaletan inbertituko dena 2.000€ inguru izango dira.

Kexak egon dira pare bat familiatik loteria sistemak duen filosofia dela eta. Ekintza kulturalentzako dirua ateratzeko beste sistema batzuk proposatzen gelditu dira.

Egutegi bat egitea da, Intxixun ikastolan egiten da eta prozesu guztia ezagutzeko Parte hartzetik geratuko da. Hurrengo juntako batzar batean azalduko da.

2019-2020ko Guraso Elkarteko kuota:

Otsailan kobratuko da eta martxoan Eskolaz kanpoko azken kuota kobratuko da, hori guztia azaldu behar da eta Delegatu Saretik bidaliko dugu mezua.

Mariak egingo du testu bat proposamen bezala eta idazkaritzakoei bidaliko die ondo dagoen testua ala ez. Komunikazioan esan behar da Guraso Elkarteko kideek pagoak domiziliatuta ez daukatenak, otsailaren 15a arte daukatela ingresua egiteko, hortik aurrera ordainketa eginda ez dutenak, ez direla izango Guraso elkarte kideak eta ordaindu beharko dutela Eskolaz kanpoko kuota osoa, jantokikoa ere bai.

Inikakoei galdetu behar diegu, nola egin ahal diren zerrendak modu erraz batean. Idazkaritzakoek Inmari esango diote zeintzuk diren haien beharrak eta Inmak Inikakoei galdetuko die. Gero zerrenda horiek diruzainari pasatu beharko da.

BIGEren asanblada:

BIGEren asanbladara joateko deialdia jaso dute (Lehendakariak, Diruzainak, Idazkaritzak, Kirolak), oso komenigarria ikusten da asanbladara joatea, BIGEn kontsulta asko egiten ditugulako eta laguntzen digutelako, beraz, Jonek bere burua proposatzen du joateko, denok ados.

Hurrengo bilera:

Zehaztu gabe, 18:00etan.

Guraso Elkartea
www.deustukoikastola.org